Bermeoko

Euskararen egoeraren diagnostikoa eta egindako lanaren balantzea

2017ko iraila

Aurkibidea

1. Sarrera 3

2. Proiektuaren deskribapena 5

2.1. Proiektuaren helburua 5

2.2. Prozesuaren eskema eta kronograma 6

2.3. Metodologia 6

2.4. Prozesuaren emaitzak 7

3. Diagnostikoa 10

3.1. Erabilera datu orokorrak 10

3.2. Familia, transmisioa, euskalduntzea eta etorkinak 14

3.3. Aisia, kultura eta kirola 18

3.4. Lan-mundua 23

3.5. Bermeon euskarak duen egoeraren inguruko azterlanak 26

4. Eranskina 31

1. Sarrera

1.1. Testuingurua

Bermeoko Udalak Euskararen Plan Estrategikoa garatzen jardun du azken urteetan, 2012. urtean onartu zuenetik. Plan horrek 5 urteko indarraldia izan du, 2013. urtetik 2017. urtera, hain zuzen ere. Hortaz, 2018 urtera begira Euskararen Plan Estrategiko berriari ekiteko unea du Bermeoko Udalak.

Plangintza berria diseinatu aurreko denbora-tartea ezin egokiagoa da geldialdia egiteko eta eguneroko dinamikatik harantzago begiratzeko; orain arte egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, emandako aurrerapausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko.

Halaber, abagune hori aproposa izan ohi da jauzi kualitatiboak emateko. Esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatzeko, edota euskararen garapenaren aldeko lanean diharduten udalerriko elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza areagotzeko. Azken batean, hizkuntza-komunitatea egituratu eta sendotzeko.

Bermeoko Udalak plangintza batetik besterako epealdi hau baliatu nahi du hizkuntzaren inguruan gogoeta eragiteko. Etorkizuneko marko berria ezartzeko, herriko eragileak eta herritarrak kontuan hartu nahi ditu, hurrengo urteetarako plangintza eurekin batera landu eta euren iritziak eta ekarpenak aintzat hartu.

Eginkizun horretarako, Bermeoko Udalak egokitzat jo du kanpo aholkularien laguntza eta Elhuyar Aholkularitzarekin lankidetzan aritu da. Elhuyar Aholkularitzak honako txosten honetan jaso ditu diagnostikoaren bidez ateratako ondorioak eta emaitzak.

1.2. Aurreko plangintzaldiko lan-ildoak, helburuak eta estrategiak

2013-2017 epealdirako Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoaren helburua honakoa izan da:

Bermeoko bizitza sozialean euskara indartzea, transmisioaren eta presentzia sozialaren bidez.

Horretarako, bost lan-ildo proposatzen zituen:

1.- **Lidergoa lantzea**: herriko alor guztietan hizkuntza-erreferenteak sortzea eta hizkuntza-jarrera aktiboak bultzatzea

2.- **Kontzientziazioa**: herritarrak, oro har, eta arloan arloko eragileak euskara erabiltzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea

3.- **Balioa ematea**: erabilera-eremu guztietan euskarari balioa ematea

4.- **Prestigioa ematea**: euskararen izen ona, garrantzia eta eragina bultzatzea

5.- **Sentimenduak indartzea**: euskaldun izatearen harrotasunaz jabetu eta aldeko sentimendu hori indartzea



Jarraian, lan-ildo bakoitzari lotutako helburuak eta helburu horiek lortzeko erabilitako estrategiak laburbildu ditugu:

1. Sarrera

1. LIDERGOA: herriko alor guztietan hizkuntza-erreferenteak sortzea eta hizkuntza-jarrera aktiboak bultzatzea	
HELBURUAK	**ESTRATEGIAK**
Arloan arloko liderren hizkuntza-erreferentzialtasuna indartzea	Arloz arloko euskaldun erreferenteak identifikatzea eta aktibatzea
	Euskaldunen sareak eta elkarreragina indartzea
Sektore estrategikoak erreferente bilakatzea	Hizkuntzaren erabileraren eta kalitatearen eredu izatea
	Hizkuntza-jokaera eredugarriak izatea
	Euskalgintza izatea euskarazko jarduera nagusien bilgunea
Jokaera eredugarriak saritzea	Herriko erakunde, enpresa eta elkarteen lana aitortzea
	Diru-laguntzak arlo estrategikoetan banatzea

2. KONTZIENTZIAZIOA: herritarrak, oro har, eta arloan arloko eragileak euskara erabiltzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea	
HELBURUAK	**ESTRATEGIAK**
Norberaren hizkuntza-ohiturak besteengan duen eraginaz jabearaztea	Gurasoak familia bidezko transmisioaren garrantziaz kontzientziatzea
	Arlo informalean euskarari lekua egitea
	Norbanakoen lehenengo berba euskara izatea
Arlo sozioekonomikoan eragitea	Sustapen-lana egitea
	Laguntza teknikoa eskaintzea
Herri osoa hizkuntzaren egoeraz jabearaztea	Kanpaina erraldoia antolatzea
	Arloz arloko sentsibilizazio-ekimenak antolatzea

3. BALIOA EMATEA: erabilera-eremu guztietan euskarari balioa ematea	
HELBURUAK	**ESTRATEGIAK**
Euskararen guneak indartzea eta berriak sortzea	Euskara erabiltzen den guneetan euskararen presentzia ikustaraztea eta indartzea (mapako gune berdeak mantendu)
	Euskara gutxiago erabiltzen den guneetan, aukerak identifikatzea eta horiek indartzea (mapako gune gorriak)
	Erabilera-bide berriak sortzea eta indartzea

	Agerpen publikoetan euskara erabiltzea
Euskararen erabilera indartzea, transmisio eta ahozkotasunaren bidez	Belaunaldien arteko harremana indartzea
	Euskaldun berriei, etorkinei, zaharrenei baliabideak eta guneak eskaintzea
Euskarazko eskaintza handitzea	Kirol- arloan euskarari lekua egitea
	Kultur arloan eskaintza mantentzea eta indartzea
	Lan-mundura sartzeko arloetan, euskarari lekua egitea

4. PRESTIGIATZEA: euskararen izen ona, garrantzia eta eragina bultzatzea

HELBURUAK	ESTRATEGIAK
Herriko hizkerari indarra eta garrantzia ematea	Familia bidezko transmisioan herriko aldaera bermatzea eta indarra ematea
	Herriko aldaerari lekua eta indarra ematea
Euskara modernitatearekin lotzea	Euskarazko sormena bultzatzea
	Euskal kirolak sustatzea
	Gazteen guneetan euskara lehenestea
	Interneten euskarazko edukiak sustatzea
Euskara kalitate eta berrikuntzarekin lotzea	Kalitatea adierazten duen marka sortu eta proiektatzea

5. SENTIMENDUAK INDARTZEA: euskaldun izatearen harrotasunaz jabetu eta aldeko sentimendu hori indartzea

HELBURUAK	ESTRATEGIAK
Identitate desberdinen arteko konplizitatea bilatzea	Hizkuntza-aniztasunari lekua ematea
	Kultura arteko harremana sustatzea
Euskaldun sentimendua indartzea	Aktibatze-taldeak sortzea eta bultzatzea
	Bermeotar izaeraren zeinu nagusi legez, euskalduntasuna sustatzea

2. Egindako lanaren balantzea

Atal honetan, 2013-2017 epealdian egindako lanaren balantzea jaso dugu. Modu grafikoan adierazi dugu, Euskararen Plan Estrategikoan aurreikusitako lan-ildoak, zenbat eta nola garatu diren.

Gehien garatu diren lan-ildoak **kontzientziazioa** eta **balioa ematea** izan dira. Bi lan-ildo horiei zegozkien ekintza ugari ipini dira martxan eta gehienetan horien emaitza eta balorazioa ona izan da. **Lidergoa** eta **prestigiatzea** lan-ildoek garapen maila txikiagoa izan dute. Lan-ildo horiei lotutako ekintza ugari bideratu badira ere, emaitza ez da aurretik aipatutako lan-ildoena bezain ona. Garapen-mailarik txikiena izan duen lan-ildoa **sentimenduak indartzea** (euskaldun izatearen harrotasunaz jabetu eta aldeko sentimendu hori indartzea) izan da.



Jarraian, lan-ildo bakoitzari dagozkion estrategien garapen-maila ikus dezakegu, kolorez adierazita:

Ekintza gehienak garatu dira, eta, balorazioa ona da
Ekintzaren bat garatu da, eta, balorazioa ona da
Ekintzaren bat garatu da, eta, balorazioa ez da ona
Ez da ekintzarik garatu

2. Egindako lanaren balantzea

LIDERGOA	
Arloz arloko euskaldun erreferenteak identifikatzea eta aktibatzea	
Euskaldunen sareak eta elkarreragina indartzea	
Hizkuntzaren erabileraren eta kalitatearen eredu izatea	
Hizkuntza-jokaera eredugarriak izatea	
Euskalgintza izatea euskarazko jarduera nagusien bilgunea	
Herriko erakunde, enpresa eta elkarteen lana aitortzea	
Diru-laguntzak arlo estrategikoetan banatzea	

KONTZIENTZIAZIOA	
Gurasoak familia bidezko transmisioaren garrantziaz kontzientziatzea	
Arlo informalean euskarari lekua egitea	
Norbanakoen lehenengo berba euskara izatea	
Arlo sozioekonomikoan sustapen-lana egitea	
Arlo sozioekonomikoan laguntza teknikoa eskaintzea	
Kanpaina erraldoia antolatzea	
Arloz arloko sentsibilizazio-ekimenak antolatzea	

BALIOA EMATEA	
Euskara erabiltzen den guneetan euskararen presentzia ikustaraztea eta indartzea (mapako gune berdeak mantendu)	
Euskara gutxiago erabiltzen den guneetan, aukerak identifikatzea eta horiek indartzea (mapako gune gorriak)	
Erabilera-bide berriak sortzea eta indartzea	
Agerpen publikoetan euskara erabiltzea	
Belaunaldien arteko harremana indartzea	
Euskaldun berriei, etorkinei, zaharrenei baliabideak eta guneak eskaintzea	
Kirol- arloan euskarari lekua egitea	
Kultur arloan eskaintza mantentzea eta indartzea	
Lan-mundura sartzeko arloetan, euskarari lekua egitea	

2. Egindako lanaren balantzea

PRESTIGIATZEA	
Familia bidezko transmisioan herriko aldaera bermatzea eta indarra ematea	
Herriko aldaerari lekua eta indarra ematea	
Euskarazko sormena bultzatzea	
Euskal kirolak sustatzea	
Gazteen guneetan euskara lehenestea	
Interneten euskarazko edukiak sustatzea	
Kalitatea adierazten duen marka sortu eta proiektatzea	

SENTIMENDUAK INDARTZEA	
Hizkuntza-aniztasunari lekua ematea	
Kultura arteko harremana sustatzea	
Aktibatze-taldeak sortzea eta bultzatzea	
Bermeotar izaeraren zeinu nagusi legez, euskalduntasuna sustatzea	

Eranskinen atalean, Euskararen Plan Estrategikoan jasotako estrategiak garatzeko martxan jarri diren neurrien inguruko xehetasunak ikus daitezke.

3. Gaur egungo diagnostikoa

Atal honetan, gaur egun, Bermeon euskararen egoera zein den ezagutzeko, hainbat alderdi aztertu ditugu, besteak beste:

- Erabilera-datu orokorrak
- Familia-transmisioa, euskalduntzea eta etorkinak
- Kirola, kultura eta aisia
- Lan-mundua

3.1. Erabilera-datu orokorrak

Hizkuntza-gaitasuna

Bermeon euskarazko hizkuntza-gaitasuna % 72,2koa da. Ehuneko altua bada ere, Bermeotarren hizkuntza-gaitasunean beherakada egon da azken hamarkadetan: 1991an % 76,8koa zen, 2001ean 75,7koa eta azken hamar urteetan 3 puntu jeitsi da.





Espero daitekeen erabilera eta erabilera erreala

Soziolinguistika Klusterrak, kale-neurketa egin du Bermeon 2016an. Kalen-neurketaren emaitzak oso esanguratsuak eta baliagarriak dira euskararen egoeraren diagnostikoa osatzeko. Hala ere, kontuan hartu behar da, kale-neurketaren datuak kalean momentu eta ibilbide zehatz batzuetan entzundakoa erakusten digutela eta Bermeoko hizkuntzen errealitatearen argazkia osatzeko beste faktore batzuk ere kontuan hartzea beharrezkoa dela.

3. Gaur egungo diagnostikoa

Soziolinguistika Klusterrak kalkulatu egiten du zein izan daitekeen herri jakin batean esperotako euskararen erabilera, herritarren hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuta.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Bermeoko euskarazko hizkuntza-gaitasuna % 72,7koa izanda, espero daitekeen erabilera % 45,2koa da. Datu errealek, ordea, emaitza kaxkarragoa ematen dute. Izan ere, kale-neurketaren bidez ikusi da, euskararen erabilera erreala % 33,6koa dela. Hau da, espero daitekeena baino 11,6 puntu txikiagoa.



Kale-erabilera

1989tik 2016ra bitarteko datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu kale-erabilerak gorakada bizi izan zuela 1989tik 2006 urtera bitarte. Azken bi kale-neurketetan, ordea, euskararen kale-erabilera nabarmen jeitsi da. 2006an % 60,67koa zen kale-erabilera. Urte horretatik 2011ra jeitsiera handia izan zen, (24,07 puntukoa) eta 2011tik 2016ra ere, jeitsiera hain nabarmena izan ez bada ere, 3 puntuko izan da.



3. Gaur egungo diagnostikoa

Datuak adin-taldeka aztertzen baditugu ikusten dugu, adin-talde guztietan egin duela behera euskararen erabilerak. Azken hamar urteetan (2006tik 2016ra) beherakada honelakoa izan da:

- Adinekoen erabilera 28,14 puntu jeitsi da.
- Helduen erabilera 21,5 puntu jeitsi da.
- Gazteen erabilera 21,54 puntu jeitsi da.
- Umeen erabilera 33,56 puntu jeitsi da

Egoera kezkagarria da adin-talde guztietan baina, batez ere, haur eta gazteen kasuan, kontuan izanda Bermeoko ikastetxeek D eredua besterik ez dutela eskaintzen. Beraz, haur eta gazte guztiek euskaraz ikasten dute Bermeon. Gainera, azpimarratu beharra dago, gazteek osatzen dutela euskara gutxien erabiltzen duen adin-taldea. Gaur egun, gazteen % 14,8k eta umeen % 36,3k besterik ez dute erabiltzen euskara kalean. Helduen % 27,8k erabiltzen dute euskara kalean, batez ere, umeak inguruan dituztenean.



Emakumeek gizonek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz kale-neurketaren arabera.

2011tik hona bai emakumeen zein gizonen erabilerak behera egin du. Hala ere, emakumeen euskararen erabileraren beherakada motelagoa dela ikus dezakegu. Emakumeen erabilera 2,6 puntu jeitsi da azken 5 urteetan, gizonen erabilera, aldiz, 6,4 puntu.

3. Gaur egungo diagnostikoa



Hurrengo taulan, kale-neurketaren datuak ikus ditzakegu laburbilduta. Taulak erakusten digun moduan, umeak eta nagusiak elkarrekin daudenean euskararen erabilera nabarmen igotzen da, elkarrizketen %52,5ean euskaraz izaten baita. Aldiz, umeak bakarrik daudenean, euskararen erabilera % 16,8koa da. Euskaraz egiten duten umeen kopurua asko jetsi da azken bost urteetan.

Datu orokorrak	Zonaldeak	Sexua	Adina	Taldearen arabera	Haur eta nagusiz osatutako taldeetan
% 33,6 euskaraz	Eskola inguruak: %39,3	Emakumezkoek % 36,5	Adinekoek: % 52	Haurrak (bakarrik): % 16,8	Nagusia hitz egitean: % 36,1
%63,6 gaztelaniaz	Goiko plaza-Intxausti: %34,7		Haurrek % 36,3	Nagusiek (haurrik gabe): % 25,1	
2,8beste hizkuntzetan	Erreten Lamera-Portuzarra: % 29,3	Gizonezkoek % 30,1	Helduek: % 27,8	Huarrek eta helduek osatutako taldeetan % 52,5	Haurra hitz egitean: % 61,0
2011-2016 bitartean 3 puntuko jeitsiera			Gazteek: % 14,8		

3.2. Familia, transmisioa, euskalduntzea eta etorkinak

Lehen hizkuntza

Azpiko grafikoetan ikus daitekeen moduan, azken 20 urteetan, bilakaera handia eman da Bermeoko biztanleen lehen hizkuntzan. 1991 bermeotarren % 71ren lehen hizkuntza euskara zen, 2001ean %67rena eta 2011an, berriz, %58arean. Ikus daitekeenez, euskararen transmisioan eten handia ematen ari da.





2016an egindako EAEko inkesta soziolinguistikoaren datuei erreparatuta, hizkuntzaren transmisioaren bilakaeran eragiten duten hainbat faktore ezagutu ditzakegu:

- Familia bateko guraso biak euskaldunak direnean, % 10ek ez du transmititzen euskara (hori % 4,5era jaisten da gazteenetan, 16-34 urteko gurasoen kasuan).
- Guraso bakarra denean euskalduna % 55,3k ez du transmititzen euskara (gazteenetan % 38,3ra jaisten da ehuneko hori).

Ziurrenik, faktore horiek eragin zuzena izan dute bermeotarren lehen hizkuntzaren bilakaeran.

Etxeko erabilera

Bermeon, etxean erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara da. Biztanleen % 44k erabiltzen du etxean euskara, % 37,9ak gaztelania, % 15,8ak bi hizkuntzak eta % 2,2ak beste hitzuntzaren bat.

Azken urteetako bilkaera ikusten badugu, etxean ere, euskararen erabilerak behera egin du eta gaztelaniarenak, ordea, gora. Etxean beste hizkuntza bat erabiltzen duten biztanleen kopuruak ere gora egin du nabarmen azken bost urteetan.





Euskalduntzea

Gaur egun, 9 dira euskara-eskolak jasotzen dituzten gurasoak. Grafikoan ikus daitekeen bezala, batez ere emakumeak dira **gurasoentzako euskera-eskoletan** parte hartzen dutenak. Aiten parte hartzea txikiagoa eta gorabeheratsuagoa dela ikus dezakegu.



Euskalduntzeko aukera desberdinak dituzte Bermeoko herritarrek. Horietako bat **Berbalagun** da eta, gaur egun, 66 pertsona ari dira programa horretan parte hartzen. Ondorengo grafikoan ikus daitekeen moduan, kasu honetan ere, parte-hartzaileen artean emakumeak nagusitzen dira alde handiz. 2014-2015 ikasturtetik aurrera, Berbalagunen parte hartzen duten emakumeen kopuruak gora egin du eta gizonen kopuruak, berriz, behera.



Etorkinei zuzendutako euskara-eskolak ere antolatzen dira Bermeon. Helduei zuzendutako ikastaroetan etorri berrien parte hartzeak behera egin du azken urteetan. Gaur egun 23 etorri berri ari dira euskara ikasten, gehienak emakumeak. Ikasle etorri berriei dagokionez, 45 dira euskara-eskolak jasotzen dituztenak. Azken ikasturtean euskara-eskoletan parte hartzen duten neska eta mutilen kopuruak gora egin du.





Biztanleriaren jatorriaren bilakaera aztertuz gero (2001-2016), soilik 15 urteko epean, etorkinen kopurua %1,29 izatetik % 8,28 izatera pasa da (% 6,99ko igoera). Gaur egun, biztanleen % 81,95 bizkaitarrak dira, %8,58 EAEtik kanpokoak eta % 8,28% Espainiar Estatutik kanpokoak.

BERMEOKO BIZTANLERIAREN JATORRIA (2016)	Kopurua	%
Araba	34	%0,20
Bizkaia	13.693	%81,95
Gipuzkoa	164	%0,98
EAEtik kanpo	1.434	%8,58
Espainiar Estatutik kanpo	1.384	%8,28
GUZTIRA	16.709	%100,00

Barne-migrazioari dagokionez, oro har, udalerriko, eskualdeko, EAEko eta Espainiar estatuan jaiotako pertsonen presentzia Bermeon, proportzionalki, gero eta txikiagoa izan da urteek aurrera egin ahala (2001-2016). Kontuan hartzekoa da, ordea, Bilbo handiak nola eutsi dion zifrari (2.386 biztanle 2001.urtean: 2.381 biztanle 2016.ean), Bizkaian jaiotakoen biztanleria murriztu den arren.

3. Diagnostikoa

Bermeoko Udalak laguntza ekonomikoa ematen die euskara ikasten duten herritarrei. Datuek erakusten digute, emandako diru-laguntzen zenbatekoa nabarmen egin zuela behera 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteetan. Azken bi ikasturtetan **diru-laguntzen** kopurua igo eta mantendu egin da. Aurreko ikasturteetan diru-laguntza jaso dutenen artean, emakumeak nagusitu dira. 2015-2016 ikasturtean berriz, dirulaguntza jaso duten emakumeen eta gizonen kopurua berdindu egin da.





3.3. Aisia, kultura eta kirola

Ume eta gazteen aisia

2017an, ume eta gazteen aisialdiaren inguruko aztelana egin du Bermeoko Udalak aisialdian hizkuntzen erabilera nolakoa den ezagutzeko: ume eta gaztetxoei zuzendutako eskolaz kanpoko ikastaroak, saioak, entrenamenduak... eskaintzen dituzten erakundeei galdeketa egin zaie, erakunde bakoitzaren errealitatea ezagutu, euskararen erabilera neurtu eta, aurrera begira, aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko esku-hartzeak diseinatzeko.

Azterlana osatzeko galdeketa 6 kultur talderi, 4 ikastetxeri eta 11 kirol-talderi egin zaie eta horietako 18k erantzun dute, hau da, % 86ak.

Honako hauek izan dira azterlanaren emaitzak, diagnostikoa osatzeko oso baliagarriak zaizkigunak:

- 4 eta 16 urte bitarteko 2.133 ume daude Bermeon, 1.023 neska eta 1.110 mutil (Ikastetxeetako matrikulazio datuen arabera). Horietatik, %77ak parte hartzen du aztertutako elkarteren bateren ekintzetan, nesken % 63a eta mutilen % 91. Ondorioz, aukera handia dago elkarte horien bitartez udalerriko ume eta gaztetxo gehienengan hizkuntza-erabileran eragiteko.

- Bermeoko ume eta gaztetxoek, gaur gaurkoz, ez dute ziurtaturik euskara erabili ahal dutenik elkarte eta ikastetxeetan antolatzen dituzten ekintza eta jardueretan, monitore guztiek ez dutelako behar besteko euskara-gaitasunik edo euskaraz jakin arren, ez dutelako erabiltzen.

- Bermeoko aisialdi-ekintzetan parte hartzen duten umeen % 95 baino gehiago euskalduna da. Hala ere, ekintza horietan eta haur, gazte eta monitoreen harremanetan euskararen erabilera ez da beharko lukeen bezain handia.

- Aisialdian ari diren monitoreen % 94 euskaldunak dira baina monitoreen eta entrenatzaileen % 83 erabiltzen du euskara (beti edo askotan). Beraz, monitore euskaldunen artean ere hobekuntzarako marjina dagoela antzematen da.

- Datuek adierazten digute monitoreek baldintzatzen dutela neurri handi batean umeen eta gazteen hizkuntza. Eurak dira ume eta gazteentzako eredu eta erreferente. Begirale edo

entrenatzaile erdaldunek bideratzen dituzten ikastaroetan edo entrenamenduetan umeek eta gaztetxoek joera handiagoa dute gaztelaniaz berba egiteko (ume guztiak euskaldunak izanda ere) bai monitore eta entrenatzaileekin eta baita euren artean ere.

- Umeen artean, gaztelaniarako joera antzematen da, batez ere, adin batetik aurrera: 12-13 urtetik gorako umeengan.
- Kultur elkarteek eta ikastetxeek egiten duten eskaintzan, euskararen erabilera handiagoa da Kirol Elkarteetatik eskaintzen diren ikastaroetan baino. Kirolaren eremuan indar handiagoa egiteko beharra sumatzen da.
- Institutuko jantokian ematen den hizkuntzen erabilera kezkagarria da. Ikasle eta begirale guztiak euskaldunak izanda ere, jantokian gailentzen den hizkuntza gaztelania da.
- Kirol Taldeetan ume eta gazte askok parte hartzen dute eta, maiz, monitoreak euskaldunak badira ere, entrenamenduetan nagusitzen den hizkuntza gaztelania da.
- Bermeoko 4 eta 8 urte bitarteko mutilen laurdena futbol eskolan ari da eta portzentaje hori ia erdira igotzen da 9 eta 12 urte bitarteko tartean. Azken adin-tarte horretan gaztelaniarekiko izaten den hizkuntza-aldaketaren sasoian eragiteko gune eta une aproposa dela baieztatu daiteke.

Kultura

Ume eta gazteen aisialdiaren inguruan egindako ikerketan, 5 **Kultur Talde**ren informazioa aztertu da: MB2000, Batun-Batun, Barrueta Arte Elkartea, Alkartasuna Dantza Taldea eta Txo Sevilla. Azterketatik honako ondorioak atera daitezke:

- Lehendabiziko 4 elkarteetako begiraleak euskaldunak dira eta antolatzen diren ekimenak euskaraz izaten dira.
- Begiraleek euskaraz egiten diete ume eta gaztetxoei eta ume eta gaztetxoek ere euskaraz begiraleei, kasu gehienetan.
- Hala ere, ikusten da gaztetxoek joera dutela, euren artean, noizean behin gaztelaniaz egiteko.
- Elkarte horietako begiraleek gurasoekin dituzten harremanak ere euskaraz izaten dira.
- Nabarmentzekoa da Alkartasuna dantza taldearen jarduna, erabat euskaraz dela.
- Txo Sevillaren kasua bestelakoa da. Begiralek ez daki euskaraz eta, beraz, horrek elkartearen jarduna eta ume eta gazteekiko harreman-hizkuntza baldintzatzen du. Dena dela, aipatu beharra dago, elkarte honetan dabilen gazte-kopurua ez dela oso handia, beste lau elkarteen kopuruarekin alderatuta: 9 gazte dira elkartean parte hartzen dutenak (guztiak euskaldunak).

Bermeoko **liburutegiko** 2016ko datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu liburutegiko bilduma osoaren herena dagoela euskaraz. Hala ere, eskuraketen erdia baino gehiago (%55) euskarazkoak izaten dira . Maileguei dagokionez, % 43 izaten dira euskaraz eta % 57, aldiz, gaztelaniaz.

LIBURUTEGIKO MATERIALA (2016)	Euskaraz	Gaztelaniaz	Bestelakoak
Bilduma osoaren kopurua	% 33	% 64	% 3
Eskuraketak	% 55	% 51	% 4
Maileguak	% 43	% 57	

Jaietako programan euskararen erabilera altua da, azken urtean jeitsiera egon bada ere. 2016an jaietako programako artikuluen % 60 eta orrien % 61 euskara izan dira. 2015ean euskarazko edukien ehunekoak handiagoak izan ziren.

BERMEOKO JAIETAKO PROGRAMAKO ARTIKULUEN BILAKAERA	2013	2014	2015	2016
Artikulu kopurua euskaraz	%77	%53	%86	%60
Orri kopurua euskaraz	%70	%48	%96	%61

Kirola

Euskara Sailak Bermeoko **kiroldegia**n hainbat azterketa egin ditu azken urteetan, euskararen erabilera nolakoa den aztertzeko. 2015ean kiroldegiko monitoreen euskara-gaitasuna aztertu zuen eta 2016an, kirolegiko erabiltzaileen gogobetetzea, euskararen erabilerai dagokionez. Jarraian, datu horiek aurkezten ditugu:

Kiroldegian, kiroldegiak zuzenean kontratatutako eta elkarte bidez kontratatutako monitoreek egiten dute lan. Elkarte bidez kontratatutako kirol-monitoreen euskararen erabilera aztertu da:

- Monitoreen % 80 (16) saio osoa euskaraz emateko gai da, entrenamenduarekin eta, batez ere, hiztegia landuz gero.
- Beste batzuek, % 10k (2), ezagutza eta entrenamendu sakona beharko lukete saioak euskaraz bideratu ahal izateko. Hala ere, gauza errepikakorrak eta errazak euskaraz erabiltzeko prest daude.
- Ez dakitenen artean %10 (2), badira batzuk euskarazko berba batzuk erabiltzen dituztenak eta apurka-apurka gehiago erabiltzeko ere prest daudenak.

Azken urteetan bilakaera garrantzitsua eman da. 2012-2012 ikasturtean euskaraz ondo moldatzen ziren monitoreak 2 besterik ez baziren, 2014-2015 ikasturtean 13 ziren, gehiengoa. Euskaraz ez dakien monitore-kopurua ere txikitu egin da.

Elkarte bidez kontratatutako monitoreen hizkuntza-gaitasuna, lau ikasturtetan

	2011-2012	2012-2013	2013-2014	2014-2015
Euskaraz daki eta ondo moldatzen da	2	6	6	13
Euskaraz daki, baina ez da ondo moldat:	5	4	2	3
Hitz egiteko zailtasunak ditu	4	4	3	2
Ez daki euskaraz	5	3	2	2
GUZTIRA	16	17	13	20

Kirol-monitore berriei dagokienez, 5 monitore berri kontratatu ziren 2015ean eta, horietatik guztiak izan ziren euskadunak, horietako 2k saioak osotasunean euskaraz egiteko zailtasunak bazituzten ere.

Elkarte bidez kontratatutako monitoreek emandako kirol-saioetan, hauxe da 2015eko egoera :

- Saio solteak: 26 ordutik 19tan betetzen da hizkuntza-irizpidea, eta 7tan ez (% 26). Izan ere, hamar monitore dabiltza saio horiek ematen, eta 8 euskaraz emateko gai dira; beste biak, aldiz saioak gaztelaniaz ematen dituzte. Monitore batzuek saioak euskaraz ematen hasten dira baina erraztasuna dute gaztelaniara salto egin eta gaztelaniaz jarraitzeko.
- Ume eta gazteentzako saioak: karate, dantza, boxeoa eta gimnasia erritmikoa. Guztira, 8 saio ematen dira. Horietatik bostetan bermatuta dago euskara. Gimnasia erritmikoko monitore batek ez du behar adinako erraztasunik saio osoa euskaraz egiteko baina beste bi monitorerekin batera aritzen denez, saioak nagusiki euskaraz eskaintzen dira. Ikastaro batean, Gaztebox, euskara ez da behar bezain beste erabiltzen, monitoreak gaitasuna izanda. Karateko bi saio ematen dituen monitoreak ez daki euskaraz.
- Ohiko saioetan, 11tik 9tan hizkuntza-irizpideak betetzen dira, eta bitan ez.

Arestian aipatu bezala, 2016, Euskera Sailak Arene kiroldegiko erabiltzaileen gogobetetzearen inguruko azterlana egin zuen, erabiltzaileen iritziz euskararen presentzia eta erabilera nolakoa den ezagutzeko. Jarraian, azterlanaren ondorio nagusiak jaso ditugu:

- Erabiltzaileen % 95 gai da euskara ulertzeko, nahiz eta guztiek ez izan euskaraz berba egiteko gaitasuna. Oso datu ona da, kiroldegian euskara erabiltzeko primerako abiapuntua.
- % 45 ikastaroetan dabil. Horrek esan nahi du ikastaroek pisu handia dutela, eta ikastaroetan eraginez gero jende askorengan eragin daitekeela.

- % 77k uste du monitoreen euskararen erabilera egokia dela, % 59,5ek euskara erabiltzen du monitoreekin, eta % 44,5ek euskara erabiltzen du taldekideekin. Horrek esan nahi du:
  - Ikastaroetan, euskararen erabilera handia dela.
  - Erabiltzaileek gehiago erabiltzen dutela euskara monitoreekin haien artean baino. Beraz, monitoreen eragina kontuan hartzekoa da.
- % 20,5ek uste du monitoreen erabilera ez dela egokia.
- Karate-eskolak gaztelaniaz ematen dira; irakasleak gaztelaniaz egiten du berba umeekin, eta, horren ondorioz, umeek haien artean gaztelaniaz egiteko joera garatzen dute.

2017an, ume eta gazteen aisialdiaren inguruan egindako azterlanean, 8 **Kirol Talde**ren informazioa aztertu du Euskera Sailak: Arraun Elkartea, Artza Pelota Elkartea, Axpoandi Bermeo Igeriketa Taldea, Futbol Taldea, Judo Taldea, Taraska Atletismo Taldea, Urdaibai Eskubaloi Taldea eta Xixili Gimnasia Taldea. Azterketatik honako ondorioak atera daitezke:

- 4 elkartetako entrenatzaile guztiak euskaldunak dira: Axpoandi Igeriketa Taldea, Judo Taldea, Xixili Gimnasia Taldea eta Urdaibai Eskubaloi Taldea. Lehenengo hiruetan, entrenatzaileek euskara erabiltzeko joera dute (ez beti). Urdaibai Eskubaloi Taldean, berriz, entrenamenduetan gaztelania nagusitzen da.

- Kirol Taldeetan parte hartzen duten ume eta gazteen % 95a euskalduna bada ere, Kirol Taldeen jarduna eta kideen arteko harremanak nahiko erdaldunduta daude.

- Euskararen erabilera txikia da, bereziki bi taldetan: Taraska Atletismo Taldean eta Urdaibai Eskubaloi Taldean. Futbol Taldearen eta Judo Taldearen kasuan, kontraesanak ikusten dira. Izan ere, entrenatzaile guztiak euskaldunak ez izanda ere, euskararen erabilera altua dela adierazten dute jasotako datuek.

- Ume askok parte hartzen dute bai Futbol Taldean (454, gehienak mutilak) baita Eskubaloi Taldean (230, gehienak neskak) ere. Generoari erreparatuta, talde handi bietako datuek adierazten digute, 5 eta 18 urte bitartekoen mutilen %41a dabilela futbolean eta 8 eta 16 urte bitarteko nesken %27a eskubaloian. Beraz, bi elkarte horietako hizkuntza-ohituretan eragitea oso interesgarria litzateke.

- Orokorrean, elkarte guztietan, entrenatzaileen eta ume eta gazteen hizkuntza-gaitasuna nolakoa den kontuan hartzen badugu, euskararen erabilera behar baino txikiagoa da.

3.4. Lan-mundua

Geurien be bai

Geurien be bai, Bermeoko Udalak arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera bultzatzeko martxan jarri zuen proiektua da. Proiektua 2004 urteaz geroztik egon da martxan.

Geurien be bai egitasmoaren hastapenetan, Udala Bermeoko enpresa handiekin hasi zen hartu-emanetan, enpresa-munduan euskararen erabilera indartzeko asmoz. Eremu horretan aurrerapausoak ematea zaila suertatzen zenez, ondoren, enpresa txikikiagoetan eragiteko erabakia hartu zuen: zerbitzu-enpresak, saltokiak, taberna eta jatetxeak...

Horietan guztietan, euskararen presentzia nolakoa zen aztertzeko azken neurketa 2014ean egin zuen Euskara Sailak. Erakunde guztietan 10 elementu neurtu ziren termometroen bidez eta hauek izan ziren emaitzak:

- Merkatariak: euskararen presentzia % 83koa izan zen saltokietan.
- Ostalariak: euskararen presentzia % 42koa izan zen taberna eta jatetxeetan.
- Turismo-eragileak: euskararen presentzia % 64koa izan zen.
- Zerbitzu-enpresak: euskararen presentzia % 70 izan zen.
- Akademiak: euskararen presentzia % 100ekoa izan zen.
- Enpresa handiak: euskararen presentzia % 59koa izan zen.



2016an, aukera sortu zen Salica enpresako langileekin elkarlanean aritzeko eta langileen arteko hizkuntza-ohituretan eragiteko. Horrela, bi taldetan, komitean (4 langile) eta bulegoan (9 langile), hausnarketara eta hizkuntza-ohituren aldaketara bideratutako saioak antolatu ziren. Honako hauek izan ziren esku-hartzearen emaitza nagusiak:

- Komitea: komiteko langileek kasuan, hasieran % 8k egiten zuen dena euskaraz, eta saioen amaieran, berriz, % 92k.
- Bulegoko langileen kasuan, hasieran % 21ek egiten zuen dena euskaraz, eta amaieran, ostera, % 72k. Kontuan hartu behar da, gainera, hizkuntza-hautua, batzuetan, kanpo-faktoreen menpe egoten dela: euskaraz ez dakien lankidea, euskalduna ez den bezeroa...

Interbentzio hauen bidez ikusi da, posible dela enpresetan, langileen hizkuntza-ohituretan euskararen erabilera modu errazean bultzatzea.
Hala ere, aipatu beharra dago, Euskera Sailak zailtasun handiak (enpresen interes eta borondate falta, sentsibilizazioa falta, lehentasunik eza) topatzen dituela Bermeoko enpresekin elkarlanean aritzeko.

Bermeoko Udalak, **diru-laguntzak** eskaintzen dizkie merkatariei eta ostalariei establezimenduetako errotuluak euskaraz jartzeko. Hurrengo grafikoetan ikus daitekeen bezala, 2014. urtean diru-laguntzetan murrizketa egon zen eta azken bi urteetan kopuruak igo badira ere, emandako diru-laguntzak ez dira 2013ko kopuruetara iritsi. 2016an, 7 establezimenduk jaso zuten diru-laguntza errotulua euskaraz jartzeagatik.





Udala

Udalaren euskararen erabileraren inguruko datuak ere aztertu ditugu. Datuak ikusita esan dezakegu, Udalak herritarrekin dituen hartu-emanetan, euskararen erabilera handia dela. Udalera zuzentzen diren herritarren % 74k euskara erabiltzen du (2013ko datuen arabera).

UDALA, 2013	Euskara	Gaztelania	Ele bietan
Herritarren hizkuntzaren erabilera udalarekin	% 74	% 22	% 4

Bestalde, udal-langileen arteko erabilera ere, euskaraz gauzatzen da, neurri handi batean. Ahozko harremanetan, euskararen erabilera %80koa da eta idazizko harremanetan, aldiz, %90ekoa.

UDALA, 2013	Ahoz	Idatziz
Udal langileen arteko euskararen erabilera	%80	% 90

3.5. Bermeon euskarak duen egoeraren inguruko azterlanak

Azken hilabeteetan, Bermeon euskarak duen egoera azaltzen duten bi azterlan argitaratu dira. Batetik, "Kultur laborategia" izeneko ikerlana, Iurdana Txintxurretak idatzitakoa eta, bestetik, "Bermeo eta Ondarroa, hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak", Eneritz Albizuk ea Goizane Aranak (UEMA) idatzitakoa.
Bi ikerketa horiek, diagnostikoa osatzeko eta aberasteko oso baliagarriak iruditu zaizkigu eta, hortaz, atal honetan, azterlan horien ondorio nagusiak laburbildu ditugu:

3.5.1. Kultur laborategia

Proiektuaren xedea:
Udalerriak bizi duen gehiegizko mugikortasunak (udalerritik kanpora eta udalerri barruan) haurren hizkuntza-portaeretan nola eragiten duen aztertzea, aisialdi ohituren eta eskolaz-kanpoko ekintzen azterketa eginez.

Ikerketaren ondorio nagusiak:

Udalerrian mugikortasuna nabarmena da.

- Biztanle kopuruan aldaketa nabarmenik eman ez den arren, deigarria da biztanleriaren ezaugarrietan gertatutako aldaketa: 15 urteko epean, etorkinen kopurua %1,29 izatetik % 8,28 izatera pasa da (% 6,99ko igoera).
- Proportzioan, Urdaibai eskualdean, gainontzeko eskualde euskaldunetan baino etorkin kopuru handiagoa dago Bermeon.
- Bizkaian jaiotakoen biztanleria murriztu den arren, Bilbotik etorritako biztanleen populazioa mantendu egin da.

Azterketa sozioekonomikoak ere Bermeok Bilborekiko duen menpekotasun harremana islatzen du, eskualdeko arlo ekonomikoaren beherakadaren ondorioz.

- Gernika-Bermeo tradiziozko ardatza ahuldu ahala nagusitu da Bilbo-Bermeo ardatza.
- Arrantzaren beherakadaz geroztik, zerbitzuen sektorea da nagusi udalerrian.
- Eremu ez hain euskaldunarekiko hartu-emana areagotu egin da azken hamarkadetan.

Udalerri barruko antolaketa, ekipamenduen kokapenari dagokionez, oro har, ez da haur horien inguruan sortzen den hiztun komunitatearen mesederako.

- Oso presentzia handia du mugikortasunak (ikastetxe irteeretan pilatzen diren ibilgailuak, autobusak, etab.). Hezkuntza ekipamenduen kokapen desegokiarekin, eta horiek etxebizitza eta gainontzeko ekipamenduekiko dituzten lotura arazoekin du harreman zuzena.
- Eleizalde ikastolako mugikortasun tasa bereziki da altua. Autobus zerbitzua erabiltzen duen ikasle kopurua % 75,45a izanik, horrek atzetik dakartzan arazoekin: adin bereko haurren sarrera-irteera ordutegi ezberdinak;itxaronaldi luzeak autobus geralekuetan; denboraren kudeaketa desegokia; bizi kalitate txikiagoa...

Guraso eta haurren komunitateak honoko ezaugarriak ditu:

- Egiturarik gabeko komunitate zatikatua, sakabanatua (Eleizalde Ikastolako kasuan bereziki).
- Eskolaz kanpoko ekintzen presentzia gero eta handiagoa da, jolas librerako tarteak murriztuta ikusten direlarik.
- Kulturari lotutako ekintzetarako denborarik ez du: alde batetik, “denbora faltagatik”; bestetik, euren ezaugarri bereziengatik (zurrunegiak, astunegiak, formalegiak, perfekzioa bilatzen dutenak). Eskaintza aukera zabala dagoen arren, ez du kohesiorik; ez da ekintzen arteko lotura ematen. Horrez gain, kultura tradizioz izan duen prestigioa galtzen ari da.

Etorkizunari begira udalerriak izan beharko lukeen erronka litzateke nola bihurtu kultur eskaintza erakargarri, beste esperientzia batzuetan oinarrituz.

- Biztanle kopuru bera eta eskualdeari lotutako antzeko arazoak dituen Gernika-Lumo izan daiteke hausnarketa eta konparaketarako adibide egokia.
- Haur eta gurasoen kolektiboari begirako eskuhartzeak gauzatuz gero, agian, euskara biziberrituko litzateke udalerrian. Ikastetxetik irten eta nahi duzun arratsalde guztietan espazio euskaldun horretara joateko aukera izate horrek talde egitura indartuko luke.
- Mesedegarria litzateke haurrak kulturara hurbiltzea.
- Kultur laborategiaren eskaintzaren izaera hautazko eta irekiak, gaur egungo aisialdi-eskaintzak erakusten duen zurruntasun eta malgutasun-ezarekin amaitzeko aukera ekarriko luke.
- Haurtzaroa esperimentaziorako tarte bezala erreserbatu beharko litzateke, esperimentazioak dakarrelako, beste gauza batzuen artean, autonomia garatzea eta norberak bere burua ezagutzea (nortasuna), inork bere ordez erabaki barik (gurasoak, etab.).

3.5.2. Bermeo eta Ondarroa, hizkuntzaren garapenean eragiten duten faktoreak

Proiektuaren xedea:

- Bermeon eta Ondarroan euskarak izan duen joeraren atzean dauden arrazoiak identifikatzea eta aztertzea.
- Bermeoko egoera aldatzen hasteko neurriak proposatzea.

Ikerketaren ondorio nagusiak:

Faktore batzuek euskararen erabileraren garapenean eragiten dute:

- Kokapen geografikoak
- Bizilagunek inguruko udalerriekin dituzten harremanek
- Biztanleriaren aldaketa demografikoak
- Turismoaren hazkundearen eraginak
- Herriko erreferenteen pisuak
- Herrian gailentzen diren balioek
- Hizkuntzaren estatusak
- Herri bizitzaren indarrak
- Idatzi gabeko arauen presentziak

Ondarroa herri euskaldunez inguratuta egoteak nolabaiteko babesa ematen dio euskarari, inguruko herriekin dituzten harremanak euskaraz izatea bermatuta baitago. Bermeok, aldiz, eremu erdalduna gertuago du, eta hara joateko joera handiagoa dute, Bilbo Handira, batez ere.

Azken hamarkadetan Ondarroan zein Bermeon izandako migrazio mugimenduei erreparatzen badiegu, bi udalerriek Euskal Herritik kanpo jaiotako pertsonen ehuneko bera dute: %17. Hori horrela, euskararen ezagutzak lau puntu behera egin du Bermeon. Ondarroan, ostera, zertxobait gora egin du ezagutzaren datuak. Beraz, ikus dezakegu, ziur aski, eragina ez dela izan Euskal Herritik kanpo sortutako pertsonena, inguruko herrietatik joandako pertsonena baino.

Mugikortasunari lotuta, turismoa ere aipatzekoa da, bisitarien kopuruan dagoen alde nabarmena kontuan hartuta. Bermeon turismoak izan duen gorakada nabarmena izan da. Ondarroan, ostera, ez dago apenas turismorik. Uste dugu gaiaren inguruan bi herriek hausnartu beharra dutela, eta euskara eta herriko identitatea balioan jartzeari lehentasuna emanda, turismoa sustatzeko neurri iraunkorrak zehaztu behar dituztela.

3. Diagnostikoa

Hizkuntzaren transmisioarekin lotuta, Ondarroaren kasuan ikusi dugu indartsu eutsi zaiola euskalduntasunari; bai erabilerari, bai euskal identitateari. Oso harro eta identifikatuta sentitzen dira beraien hizkerarekin, eta ez dute inongo zalantzarik agertzen, gainera, sentipen hori adierazten dutenean. Belaunez belaun transmititu diren balioak izan dira, aiton-amonengandik eta haien aurrekoengandik datozenak. Bermeon, ordea, haustura gertatu da euskal identitatearen transmisioan.

Historikoki arrantzale herri izaera izan dute biek, eta bietan euskarak indarra izan du eremu horretan; errepertorio handia garatu dute bi herrietan arrantza munduaren bueltan. Itsasoko munduaren gainbehera bizi izan dute bi herriek, baina euskararengan izan duten ondorioak oso bestelakoak izan dira. Ondarroak eutsi egin dio euskal izaerari, indartsu; Bermeon, aldiz, haustura egon da. Ondarroan euskaraz aritzen ez zirenak; alegia, estatus handiagoko lanbidetan aritzen zirenak, ere euskaraz jarduten dute egun; Bermeon, aldiz, ez da lortu euskal identitatearekiko atxikimendua zabaltzea.

Gaitasunari dagokionez, ondarroarrek euskaraz errazago egiten dute gaztelaniaz baino; ordea, ikus daiteke bermeotarrek bi hizkuntzak berdin menderatzen dituztela edo gaztelaniaz hobeto moldatzen direla. Logikoa ere bada, erabilerak berak gaitasuna hobetzea baitakar, eta erabilerarik ezean, nekez lortuko baita ahozko gaitasuna hobetzea eta garatzea.

Ondarroan euskaraz egiteko motibazioa handia da; bai afektiboa, bai pragmatikoa. Euskal identitatearekin duten lotura afektiboa handia da; eta alde pragmatikotik begiratuta ere, lotura afektiborik ez dutenek, adibidez, kanpotik etorritakoek, euskaraz egiteko beharra sentitzen dute. Bermeon alderantzizkoa gertatzen da, motibazio afektiboa ahula dela ikusi dugu; eta, bestetik, beharra ere ez dute sentitzen euskaraz aritzeko, ez bada eremu formal zehatz batzuetan, eskolan, herri administrazioarekin harremanetan eta abar. Euskaraz egiteko hautuari indartsu eusten diote Ondarroan, eta ahul Bermeon. Hainbat arlotan (etxean, eskolan eta eragileen artean) lana egin beharra nabarmenduko genuke, herri hizkerari balioa emanda, ereduak eskainita, herritarrak ahaldunduta eta abar.

Ondarroaren kasuan, jakin dugu herri bizitza aktiboa eta dinamikoa dela; kalean bizitza handia egiteko joera izan dute ondarroarrek, harreman sarea trinkoa da, eta horiek guztiak euskaraz egiten dituzte. Bermeon, ostera, ahulduta sumatzen dute herri giroa zein mugimendua. Batetik, Alde Zaharra husteak eta poteoa desagertzeak herri bizitza euskaldunaren gainbehera ekarri duela diote Bermeon; bizimodu ohituretan aldaketak izan dira, eta horrek ondorioak ekarri ditu. Bestetik, adierazi dute jendea mugitzea kostatu egiten dela, eta euskararen mundua pertsona jakin batzuekin identifikatzen dela.

Erreferenteei dagokienez, Ondarroan pertsona jakinak baino herri eragileak, elkarteak dituzte erreferentetzat eta denek euskaraz funtzionatzen dute. Inori ez zaio bururatzen gaztelaniaz aritzea,

arau soziala oso barneratuta dago eta eredua hori da. Bermeko erreferenteek, aldiz, ez dute euskaraz funtzionatzen. Kirol mundua izan da aipatuena, futbola, batik bat, eta hor eredua gaztelaniazkoa da. Euskaraz lan egiten duten taldeek ez dute erreferentzialtasunik herrian. Arlo honetan ere badago zer egina, elkarteak, eragileak, norbanakoak euskarazko erreferente bihurtzeko. Herri mugimendua eta herri bizitza indartu beharra premiazkoa da, eta indartze hori ezinbestez euskaratik egin behar da. Gazte talde erreferenteak sortzeari eta indartzeari lehentasuna ematea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Eranskina

Atal honetan, (2013-2017) Euskararen Plan Estrategikoaren ebaluazio zehatza aurkezten dugu: Lan-ildoak, helburuak, estrategiak eta martxan ipinitako neurrien garapen-maila.

Ekintza gehienak garatu dira, eta, balorazioa ona da	Ekintzaren bat garatu da, eta, balorazioa ez da ona
Ekintzaren bat garatu da, eta, balorazioa ona da	Ez da ekintzarik garatu

LIDERGOA: herriko alor guztietan hizkuntza-erreferenteak sortzea eta hizkuntza-jarrera aktiboak bultzatzea

LIDERGOA: 1. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Arloan arloko liderren hizkuntza-erreferentzialtasuna indartzea		Sektore guztiak
ESTRATEGIAK	**PROPOSATUTAKO NEURRIAK**	**EGINDAKOA**
Arloz arloko euskaldun erreferenteak identifikatzea eta aktibatzea	▪ Motibazio-saioak bultzatu: TELP, elkarteetan interbentzioak... ▪ ERALAN proiektua indartu: zinegotzi eta udaleko langileekin saioak ▪ Ikastetxeetan ikasle eta irakasle liderrak identifikatu ▪ Etorkin euskaldunak inplikatu eta euren aktibotasuna hedatu ▪ Herriko kirolari ezagunekin batera ikastetxeetarako saioak antolatu	▪ Egin diren motibazio-saioak: TELP tailerra (zinegotziak,udal langileak, herritarrak, gazteak); neurrirako ekimenak: Arraun Elkartea, Salica ▪ 2 eta 3 urteko umeen gurasoekin hainbat saio egin ditugu ikastetxeetan ▪ Ahaleginetan: Eskubaloi taldea, Erroxape. ▪ Batxilergoko 1. Mailako ikasleentzat unitate didaktikoak prestatu genituen, baina ez zuen aurrera egin. ▪ Zinegotziekin hausnarketa-saioak egin dira. ▪ Ikastetxeekin ez da lanketa berezirik egin ▪ Herriko kirolariekin ez da saiorik antolatu ▪ UEMAren hizkuntza-proiektuaren bidez, HH eta DBHko irakasleekin lan egin da, baita Batxilergoko ikasleekin ere. ▪ Udalean EUSLE dinamika, euskararen erabilera handitzeko erreferenteen laguntzarekin. ▪ Berba eta Kafea eta Miñe Lamiñe: 2014n erreferenteekin lan egin genuen eta ekitaldi guztietan herriko kultur erreferenteak bultzatu nahi izan ditugu.
Euskaldunen sareak eta elkarreragina indartzea	▪ Aktibatze-taldeak indartu: arlo sozioekonomikoa, gurasoak ▪ Aktibatze-talde berriak sortu: gazteak, 3. adina ▪ Arlo informalean (koadriletan, txokoetan, lonjetan…) aliatuak topatu (esaterako, kaleko hezitzailea) eta elkarlana bultzatu	▪ Guraso elkarteetako ordezkariekin hainbat lan: *Benetan maite nauzu?* ekimena, 8 batzar ▪ Gazteekin ahalegindu ginen taldea sortze, baina ezin izan dugu modu iraunkorrean funtzionatu ▪ Kaleko hezitzailearekin hainbat lan egin ditugu.

LIDERGOA: 2. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Sektore estrategikoak erreferente bilakatzea		Komunikabideak, euskalgintza, udala, hezkuntza
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Hizkuntzaren erabileraren eta kalitatearen eredu izatea	▪ Herriko komunikabideek (Hitza, Itsuki Irratia,…) kalitatezko (jatorra, egokia eta zuzena)[1] euskara erabiltzeko bideak bermatu ▪ Udaleko euskarazko idatzien komunikagarritasuna landu	▪ Ez da ekimen berezirik bideratu ▪ Udal barruan komunikagarritasunaren inguruko diskurtsoa landu da. ▪ Udaleko inprimakiak berritu eta egokitu egin dira: eredu bateratuak sortu dira (bandoak, kexak, erantzunetarako ereduak, etab.)
Hizkuntza-jokaera eredugarriak izatea	▪ Udalak duen hizkuntza-politika aktiboarekin jarraitu ▪ Herriko pertsona esanguratsuek (alkatea, zinegotziak, elkarte handietako lehendakariak…) hizkuntza-jokaera kontzienteak eta aktiboak izateko bideak landu	▪ Udaleko ordezkari politikoekin saioak egin dira hizkuntza-lidergoa lantzeko eta bide-orria ere landu zen.
Euskalgintza izatea euskarazko jarduera nagusien bilgunea	▪ Aholku Batzordean eta bestelako egituretan aztertu zer den euskalgintza ▪ Euskalgintza gauzatzeko urratsak eman	▪ Aholku Batzordea berritu eta indartu egin da.

LIDERGOA : 3. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Jokaera eredugarriak saritzea		Sektoreetako liderrak
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Herriko erakunde, enpresa eta elkarteen lana aitortzea	▪ Euskararen Egunean Geurien be bai egitasmoko eragileekin elkartu eta komunikazioa bultzatu ▪ Erakundeen praktika onak ezagutzeko, aldizkarian elkarrizketak egin ▪ Udalak BIKAIN ziurtagiria mantendu	▪ Euskararen Egunaren bueltan urtero antolatu dugu ekimenen bat eragile eta herritarrekin (Berba eta Kafea, Miñe Lamiñe). ▪ Aurrekontuan izandako gorabeherengatik, aldizkaria ez da argitaratu 2013tik.
Diru-laguntzak arlo estrategikoetan banatzea	▪ Ikastetxeetako euskara-planak bultzatu ▪ Ume eta gaztetxoen Bizkaiko bertso-txapelketa bultzatu ▪ Euskara ikasteko diru-laguntzak eman ▪ Merkataritza arloko errotuluak diruz lagundu	▪ Euskara ikasteko diru-laguntzak eman dira. ▪ Merkataritza arloko errotuluak diruz lagundu dira.

KONTZIENTZIAZIOA: herritarrak, oro har, eta arloan arloko eragileak euskara erabiltzeak duen garrantziaz kontzientzia hartzea

KONTZIENTZIAZIOA : 1.HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Norberaren hizkuntza-ohiturak besteengan duen eraginaz jabearaztea		Familia, elkarteak, gazteak, udala...
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Gurasoak familia bidezko transmisioaren garrantziaz kontzientziatzea	• Guraso berrientzako sentiberatze-ekimenak antolatu: bertsopaper pertsonalizatua koadroan, autorako eranskailua, umeen kantak; jaioberrien liburua eta ekitaldia • Guraso elkarteetan eragin: euskara gehiago erabiltzeko estrategiak lantzea • 3 urteko umeen gurasoentzako saioak antolatu: euskararen erabileraz sentiberatzeko informazio baliogarria ematea • Euskarazko eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzearen garrantzia azpimarratu	• Gurasoentzako hainbat ekimen antolatu dira • Guraso elkarteekin bi urtetan lan egin dugu eta Eleizalde Ikastolako gurasoekin hiru saioko tailerra • Saioak antolatu dira: Sagrado Corazon ikastetxean (2) eta San Frantzizko ikastetxean (1) • Eskolaz kanpoko jardueren eta kirol arloko diagnostikoa egin dugu eta hobetzekoak proposatu. • UEMArekin, eta, Gurasolagun ekimenaren barruan, guraso eta seme-alabekin herriko erreferenteak eta hizkuntza-ohiturak lantzen ari gara.
Arlo informalean euskarari lekua egitea	• Gazteen txokoetan eragiteko hizkuntza-ohituren azterketa egin • Lagun-taldeetan hizkuntza-ohiturak euskaratzeko eragin: berbalagun, gurasolagun	• Ahalegina egin da kaleko hezitzailearen bidez, baina ez ditugu espero genituen emaitzak jaso. • Berbalagun eta gurasolagun ekimenak martxan dira. • Herriko gazteekin Bizentaren Lumak ekimena egin dugu. • Arraun-taldean hizkuntza-ohiturak lantzeko saioak.
Norbanakoen lehenengo berba euskara izatea	• Norberaren hizkuntza-hautua indartu: edonon, edonorekin, edonoiz • Bermeon euskara egiteko ditugun aukeren berri eman: 10etik 8k euskara ulertzen du. • Merkataritza eta ostalaritzan lehenengo berba euskaraz izateko kanpainak egin • Agerpen publikoetan euskara erabili lehenengo: komunikabideetan; kirolean Kalinpanekin batera animo-oihuak...	• Merkataritza alorrean hainbat kanpaina egin dira • Hainbat agerpen publikotan Kalinpanek parte hartu du, animo-oihuak banatu ditugu. • GEUK. Eus kanpaina. • Mahai-gaineko egutegiak leku publikoetan (Hemen euskaraz egiten da).

KONTZIENTZIAZIOA: 2. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Arlo sozioekonomikoan eragitea		Enpresak, merkataritza eta ostalaritza
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Sustapen-lana egitea	• Herriko enpresa handietan banakako lana egin • Turismo Kalitateko eragileen lanean jarraitu • Enpresa txiki eta ertain gehiagotara zabaldu • Geurien be bai egitasmoan ez daude merkatariengana zabaldu	• Hainbat enpresatara jo dugu: Salica (hizkuntza-ohiturak lantzeko, Serrats (etiketaia, euskaraz); Zallo eta Arroiabera ere egin dira bisitak, baina ez dugu emaitzarik lortu. • Q turistikoa duten hainbat enpresekin helburuak adostu ditugu. • Akademietara eta jateko arinen enpresekin lan egin dugu.
Laguntza teknikoa eskaintzea	• Laguntzak mantendu (errotuluak, testu maketatuak, itzulpenak...) • Euskaraz jarduteko beharrezko materiala eskuratu: eskuliburuak, aplikazioak... • Euskara-planak edo ekintza zehatzak bideratzeko laguntza eman	• Laguntza teknikoa eskaini da. • Baliabideak eskaini dira. • Aholkularitza eskaini dugu.

KONTZIENTZIAZIOA: 3. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Herri osoa hizkuntzaren egoeraz jabearaztea		Sektore guztiak
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Kanpaina erraldoia antolatzea	• Euskalgintza indartu • Euskaldunetan zentratu: prentsaraztea, euskaldunak kontziente egitea egoera bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen duen • Herrigintzan oinarrituta kanpaina antolatu: antzerkia egin egoera errealekin, ispilu eginez; euskaldun erreferenteek parte hartzea; Bermeon euskara gutxiago zergatik erabiltzen den sakon aztertu;...	• *Geuk. eus* kanpaina antolatu dugu. 2016an, 714 argazki eta 268 bideo egin dira. • *Miñen puntien* kantaren zabalkundea eta oihartzuna.
Arloz arloko sentsibilizazio-ekimenak antolatzea	• Bi eta hiru urteko gurasoentzako saioak ikastetxe guztietara zabaldu • Umeek gaztelaniara salto egiten duten adinean eragin (LHko 3. maila gutxi gorabehera) • Euskalduntzeko arloan arloko kanpainak egin • Txosnetan eragin	• Ikastetxe bitan egin ditugu: Sagrado Corazonen eta San Frantziskon. • Txosnetan *Miñen Puntiegaz* kanta aurkeztu da. • UEMAren hizkuntza-proiektuaren bidez, HH eta DBHko irakasleekin lan egin da, baita Batxilergoko ikasleekin ere. • Irakurriz Gozatu eta Irrien Lagunak ikastetxeetan. • Udal langileekin, euskararen ibilbide historikoa ere landu da.

BALIOA EMATEA: erabilera-eremu guztietan euskarari balioa ematea

BALIOA EMATEA : 1. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Euskararen guneak indartzea eta berriak sortzea		Sektore guztiak
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Euskara erabiltzen den guneetan euskararen presentzia ikustaraztea eta indartzea (mapako gune berdeak mantendu)	• Erreferentzialtasuna landu • Gune informaletan eragin: Lamera, Kapilla,... • Gune formaletan eragin: kultur- etxea, musika-eskola, kiroldegia, ikastetxe barruak	• Geuk.eus kanpainaren bidez • Lameran, Geuk.eus fotomatoia jarri da • Gune formaletan, erabilera-planaren bidez eragin da. • Kiroldegia: monitoreekin ekimenak, galdetegia, etab.
Euskara gutxiago erabiltzen den guneetan, aukerak identifikatzea eta horiek indartzea (mapako gune gorriak)	• Gune formalen inguruak: kultur- etxea, musika-eskola, kiroldegia, ikastetxe kanpokoak • Kirol- elkarteen entrenamenduak, gaztelekua (gazteek), Hermanuek, Lamera,	• Kiroldegian hainbat azterketa eta ekimen bideratu dira • Futbol-elkartean, Itzarri Consulting-ekin entrenamenduak bideratu dira bi urtetan • Eskolaz kanpoko jardueretako diagnostikoa egin da, eta, eragileei aurkeztu zaie.
Erabilera-bide berriak sortzea eta indartzea	• Gidabaimena euskaraz ateratzeko kanpainak egin • Sare sozialak euskaraz erabiltzea bultzatu	• Gidabaimena euskaraz egiteko kanpaina eta diru-laguntza abiatu da • Facebook orria zabaldu du Euskara Sailak (851 atsegite eta 1682 lagun)
Agerpen publikoetan euskara erabiltzea	• Komunikabideekin egindako elkarrizketetan euskara erabiltzeko estrategiak landu (kirolariak, politikoak, herritarrak) • Herriko administrazio, elkarte eta bestelakoek antolatutako ekimenetan euskara erabiltzeko hizkuntza-irizpideak eta –aukerak zabaldu	• Arraun-elkartearekin eta udal politikariekin landu da • Ekitaldietarako irizpideak proposatu dira eta jarraipena egin da.

BALIOA EMATEA: 2. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Euskararen erabilera indartzea transmisio eta ahozkotasunaren bidez		Familia, etorkinak, euskalgintza
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Belaunaldien arteko harremana indartzea	• Ipuinlapiko egitasmoa indartu • Ahotsak.com-ekin lanean jarraitu eta zabaltzeko bideak topatu	• Ipuinlapikoa egitasmoarekin jarraitu da. • Ez da ekimen berezirik bideratu.
Euskaldun berriei, etorkinei, zaharrenei baliabideak eta guneak eskaintzea	• Berbalagun eta ekintzak osagarriekin jarraitu: tailerrak, diaporamak, irteerak, lehiaketak, buletina • Nagusiei euren euskaraz eroso aritzeko saioak eskaini • Etorri berriei euskara-eskola berezituak eskaini • Etorri berriei oinarrizko komunikaziorako hiztegia eskaini	• Egitasmoak martxan jarraitzen du. • Erroxape elkartearekin saioak antolatu dira. • Eskola lagungarriak eskaintzen dira etorri berrienzat. • Eskuko hiztegia etorri berrientzat.

BALIOA EMATEA: 3. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Euskarazko eskaintza handitzea		Kirola, kultura, lan-mundua, hezkuntza
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Kirol- arloan euskarari lekua egitea	• Kirol-ikastaroak euskaraz eman eta hizkuntzen erabilerarako protokoloa ezarri • Kirol-monitoreei saioak euskaraz emateko baliabideak eskaini • Kirol-elkarteekin lan egin entrenamenduetan euskara erabiltzeko • Kirol-ekitaldietara joaten direnei euskarazko animo-oihuak erabiltzera bultzatu; antolatzaileei euskaraz egiteko laguntza eskaini	• Kiroldegiarekin lan egin dugu • Kirol-monitoreei eskaini zaizkie baliabideak • Kirol-elkarteei eskaini zaie aukera, eta, futbola, arrauna eta saskibaloiarekin egin dugu lan. • Kalinpanekin batera zabaldu dugu erabilera eta laguntza.
Kultur arloan eskaintza mantentzea eta indartzea	• Nagusien dantzaldian euskarari presentzia eman • FM dantzaldian euskarazko musikari “kuotak” jarri • Kultur ikastaroak euskaraz eman eta hizkuntzen erabilerarako protokoloa ezarri • Kultur programazioan euskararen eta euskal kulturaren (baita modernoa ere) presentzia indartu • Jaietako ekintzetan euskararen eta euskal kulturaren (baita modernoa ere) presentzia indartu	• FM dantzaldian euskal musika entzuteko lanketa egin da. • Arrain Azokarako euskarazko musika-zerrenda egin zen eta Spotifyn zerrenda publikoa zabaldu da. • Kultur programazioaren jarraipen zehatzik ez da egin. • Irakurleen Txokoa dinamika. • *Miñen puntiegaz* kanta jaietan estreinatu zen.
Lan-mundura sartzeko arloetan, euskarari lekua egitea	• Behargintzako ikastaroetan euskarari lekua eskaini • Lanerako prestakuntzan euskarazko lerroa indartzea	• Behargintzarekin hainbat harreman egin dira, baina ez da ekimen berezirik bideratu • Ez da ekimenik bideratu.

PRESTIGIATZEA: euskararen izen ona, garrantzia eta eragina bultzatzea

PRESTIGIATZEA: 1. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Herriko hizkerari indarra eta garrantzia ematea		Familia, euskalgintza, udala
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Familia bidezko transmisioan herriko aldaera bermatzea eta indarra ematea	• Familian gurasoak eredu izateko ekimenak bultzatu • Familia-mota (euskaldunak, mistoak, erdaldunak) guztietarako hizkuntza-jokabideak landu • *Ipuinlapiko* moduko egitasmoak bultzatu	• Hainbat ekimen: Jaioberrien liburua eta ekitaldia, sentsibilizazio-tailerrak, aktibazio-taldea, Benetan maite nauzu? • Emaginak ematen dituen saioetan hizkuntzaren transmisioa txertatzea. • Ipuinlapiko
Herriko aldaerari lekua eta indarra ematea	• Herriko aldaera(k) noiz eta zertarako erabili adostu • Herriko aldaera(k) eta batuaren arteko “adiskidetasuna” landu • Bermeoko euskara ona dela zabaldu eta sinistueragin; norberarena aldarrikatu eta euskaldunaren autoestimu kolektiboa landu • Herriko komunikabideekin batera landu	• *Miñen puntiegaz* kanta

PRESTIGIATZEA: 2. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Euskara modernitatearekin lotzea		Kultura, kirola, gazteak, sare sozialak
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Euskarazko sormena bultzatzea	• Musika-taldeetan euskarazko musika bultzatu • Antzerki-tailerrak , literatur tailerrak antolatu • Bertsogintza-eskola sortu	• *Miñen puntiegaz* kanta • Gazteak bertsotan ikastetxeetan • Antzerki taldea (2010-2015 urteetan)
Euskal kirolak sustatzea	• Berezko euskal kirol-elkarteekin batera, erreferentzialtasuna eta euskaltasuna landu	• Arraun Elkartearekin hainbat lan egin dira.

Gazteen guneetan euskara lehenestea	• Gazteentzat antolatutako ekimenetan euskara lehenetsi • Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatu, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko	• Facebook kontua, webgune eguneratua, Geuk.eus webgunea.
Interneten euskarazko edukiak sustatzea	• Euskera Sailaren webgunearen berri eman eta eguneratuta mantendu • Arloan arloko eragileei Interneten topa ditzaketen baliabideen berri eman	• Webgunea eguneratuta dago. • WhatsApp erabiltzen da hainbat eduki zabaltzeko.

PRESTIGIATZEA: 3. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Euskara kalitate eta berrikuntzarekin lotzea		
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Kalitatea adierazten duen marka sortu eta proiektatzea	• Udalak lortutako BIKAIN ziurtagiriaren bidez, beste arlo batzuetan antzeko ekimenak bultzatu • UEMAko partaide izateak ematen dituen onurak eta erreferentzialtasuna zabaldu	• UEMArekin hainbat lan egin dira: ○ Saioak ikastetxeetan ○ Gurasolagun ○ Udaleko planaren barruan, Eusle saioak, saio masiboak ○ Bermeo/Ondarroa azterlana

SENTIMENDUAK INDARTZEA: euskaldun izatearen harrotasunaz jabetu eta aldeko sentimendu hori indartzea

SENTIMENDUAK INDARTZEA: 1. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Identitate desberdinen arteko konplizitatea bilatzea		Euskalgintza, herria, etorkinak
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Hizkuntza-aniztasunari lekua ematea	• Eleaniztasunak dituen onurak zabaldu • Euskara ez dakitenak euskarara ekartzeko ekimenak antolatu • Euskara ikasteko eta alfabetatzeko beharra zabaldu	• Etorri berrientzako laguntza ikastaroak • Proiektuetan integratzeko ahalegina egin dugu. • Errefuxiatuen taldean euskarari eta euskal kulturari buruzko hitzaldia.
Kultura arteko harremana sustatzea	• Kultura ezberdinetako erreferente euskaldunak identifikatu eta beraiekin batera ekimenak landu	• GEUK.eus kanpainaren barruan

SENTIMENDUAK INDARTZEA: 2. HELBURUA		**ERAGIN-ESPARRUA**
Euskaldun sentimendua indartzea		Euskalgintza, identifikatuta arloak
ESTRATEGIAK	**NEURRIAK**	
Aktibatze-taldeak sortzea eta bultzatzea	• Arlorik esanguratsuenak identifikatu • Aktibatze-taldeen lana komunikatu eta saritu	• Gazteak: ez du modu iraunkorrean funtzionatu; gurasoak: kanpaina antolatu genuen; adinekoak: ez dugu lortu modu iraunkorrean.
Bermeotar izaeraren zeinu nagusi legez, euskalduntasuna sustatzea	• Jaietan euskal kultura indartu • Bestelako ekimenekin jarraitu: Erromeridxe, herri-antzerkia... • Herriko elkarte eta txokoak inplikatu	• Elkarteekin lan egin dugu.